

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

10. alea • 2009ko Martxoa • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea • Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08

Orain ere Interneten: [www.ekonomiarenkz.eu](http://www.ekonomiarenkz.eu)

ELKARRIZKETAK



Arantza Matías  
BILBAO DENDAK elkarteko  
presidentea

"Jai-egunetan ez irekitzea  
erabakitzen duten merkatariek  
errespetu osoa merezi dute"

8-9. orrialdea



Marian Elorza  
Eusko Jaurlaritzako  
Nazioartekotze zuzendaria

"Nazioarteko merkatuetan  
ari diren enpresek hobeto  
egiten diete aurre krisiari"

8-9. orrialdea

ERREPORTAJEA

## Getxoko komertzioa, merkataritza bizkaitarraren isla



Krisialdiaren eraginez eman den kontsumoaren moteltzeak kalte zuzena egin die hiriko komertzio tradizionalei. Datu ofizialen arabera, komertzio txiki eta ertainen salmentek %5 egin zuten behera 2008ko azken hiruhilabeteen. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ingururen isla izan daitekeenez, Getxora hurbildu da Ekonomiaren Kazeta merkataria ordezkatzen dituen elkartearen inpresioak jasotzeko asmoz. **10-11. orrialdea**

ALBISTEAK

## Norbolsak 20 urte betetzen ditu

Euskal kutxek sortutako balore-sozietateak bere XX. urteurrena ospatu du pasa den otsailean. Bilbon izandako prentsaurrekoan, Norbolsako arduradunek "ekitaldi ona" bezala definitu zuten 2008 urtea eta gizartearen "errentagarritasuna" azpimarratu zuten.



3. orrialdea

## ITPk Airbus 350 hegazkinetarako turbinak ekoitziko ditu



Euskal enpresak A-350 hegazkin komertzialetarako presio baxuko turbinak diseinatuko ditu. Kontratu

honen ondorioz, 2.000 milioi euro eskuratuko ditu lehenengo 20 urteetan.

3. orrialdea

## STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
 E-MAILA: [ekonomiarenkz@leizaola.org](mailto:ekonomiarenkz@leizaola.org)  
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo  
 ADMINISTRAZIOA: Pabli Zubiaur.  
 MERKATARITZA KUDEAKETA: Nuriá Martínez.  
 DISEINU ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña.  
 BANAKETA ARDURADUNA: Sergio Fernández.  
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Itxastegia  
 EGILEA: Leizaola Elkarte  
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Bizkaia  
 Ekintza honek Bizkaiko Foru  
 Aldundiaaren Kultura Sailaren  
 laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK  
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA  
 POLITIKARAKO  
 SAIBURUORDEZTA)  
 DIRUZ LAGUNDUTAKOIA

ADITUAREN  
IRITZIA

Jon Sustatxa,  
 Lan Ekintzako  
 presidentea

**Komertzioa:**  
 lehentasunezko arreta

Datorren urteetan, Lan Ekintzako jokabideen oinarria komertzioa izango da. Hori dela eta, komertzio berrien sorkuntza eta jandak zabalik dauden mantenua sustatuko ditu sendo-sendo Bilboko Udalak. Aldi berean, berrikuntza eta kalitatearen aldeko lana bultzatuko du, alor ekonomiko honi diru laguntza bereziak eskainiz.

Merkataritzaren hazkundea eta hobekuntzak hiriak barneratzen dituen auzoen garapen eta sustapen ekonomiko eta soziala indartzera datozte. Era berean, Bilbo eta biztanleen garapen oreketa eta solidarioa lortzera laguntzen digu. Helburu honekin, barruti guztietan garatuko diren ekimen eta ekintza plana zehatzak prestatu ditu Lan Ekintzak, bai Zorrozaurre nahiz Basurto bezalako aukera berriko zonaldeetan baita

## GORA / BEHERA

## GORA

Euskalduna Jauregiaren 10. urteurrena Aurretan ospatzen du Bizkaiko Euskalduna Jauregiak bere 10. urteurrena. Euskalduna Jauregiako arduradunek "bikaina" bezala definitu dute lehenengo hamar urte hauetako ibilbidea. Aro oparo honen zehar Jauregiak bi sari jaso ditu, AIPC elkarteko Munduko Kongresu Zentro Onenen Saria eta Espainiar estatuko Kongresu Antolatzaileen Federakuntzako Sari Nazionala, 2003an biak. Urte hauetako zifrak Euskaldunaren arrakasta azpimarratzera datozte. Horrela, Jauregiaren batez besteko betetzea %88,1ekoa izan da, 2008koa errekorrekoa izanda, %94a, alegia. Datorren ekitaldirako ekintzen beherakada aurreikusten badute ere, hamarkada honetan 7,49 milioi euroko superabita utzi du Euskaldunak eta Euskadiko BPGren gaineko eragina 612.694.000 eurokoa izan da.



Euskalduna Jauregiaren 10. urteak "arrakastatsuak" izan dira

## BEHERA

Espainiar estatuko Bankuen Elkarte (AEB), elkartasun eza

Madrilgo Gobernu zentrala eta Espainiar estatuko Bankuen Elkartearen arteko hika-mika areagotu egin da azken asteetan. Zapateroko Gobernuak maileguren iturria ez ixtea eskatu die banketxe espainiarrei, familia eta enpresek kredituen premia handia baitute orain. Bestalde, kaudimenaren baldintzapean soilik luzatuko dutela dirua adierazi du Espainiar estatuko Bankuen Elkarteak (AEB). Gobernuak utzitako dirua Espainiar banketxeek haren gordailuak babesteko erabiltzen ari dutela ematen du eta ez ekonomia berpizteko. Egungo krisialdiaren jatorria finantza sistemak berak eragin duenez, laguntzarik handiena orain arte gehien aberastu direnetik etorri behar da orain.



Espainiar estatuko Bankuen Elkarte (AEB) ez da enpresei eta familiei likidezia erraztearen alde agertzen

birpizkundea behar duten zonaldeetan ere, hala nola, Otxarkoagan, Bilbo Zaharrean, Uribarrin, Rekalde eta Zorroztan.

2011 urte arte doan Lan Ekintzako Plana Estrategikoaren objektibo nagusienera irazteko izanda, alor komertzialak arreta berezia jasoko du Lan Ekintzaren partez, Bilboko aurrerakuntza eta hiriko biztanleriaren onurarako izango dena.

## KOMIKI



## Egin zaitez harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hilerdo doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupoia honako helbidera:

- 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo,
- edo idatz ezazu [info@ekonomiarenkz.eu](mailto:info@ekonomiarenkz.eu) posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: \_\_\_\_\_ IZENA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_ E-MAIL: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_ P.K.: \_\_\_\_\_

## ALBISTEAK



Agustin Garmendia eta Xabier Iturbe, Norbolsako presidenteak

## Norbolsak 20 urte betetzen ditu

Agustin Garmendiak, Norbolsako presidenteak, balore-sozietatearen XX. urteurrenaren ospakizuna aurkeztu zuen otsailean Bilbon izandako prentsaurrekoan. Bera-ekin batera, Kutxako txan-

dakako presidente eta Norbolsako presidente Xabier Iturbe ere agertu zen hogeit urte hauen balantzea egiteko asmoz. "Norbolsarena historia arrakastatsua da" baieztatu zuen Xabier Itur-

bek, izan ere, gaur egun Norbolsa "liderra da euskal merkaturan", "negozioaren bolumena kontuan hartuta". Garmendiak gizartearen "errentagarritasuna" azpimarratu zuen.

2008koa "ekitaldi ona" izan zela adierazi zuten hiru euskal kutxek osaturiko sozietateko presidentek, "oso ondorio negatiboak izan dituen urte zail baten aurrean aurkitu bagara ere". Hala ere, iaz 2007an baino %50 gutxiago irabazi du Norbolsak, 3,1 milioi euro, guztira. Euren kapitalizazio maila 22 milioi euroekin indartu dute, eta egindako negozioei erreparatu, Bilboko burtsako hirugarren postua du Norbolsak, BBVA eta Santander finantza erakundeentzatetik. Era berean, Bilboko burtsako negozioa %2koa izan zen 2008an, 2007an %5ekoa izan zen bitartean. Urte honetarako aurreikuspena "2008ko emaitzak errepikatzea izango litzateke".

### Burtsaren beheranzko ibilbidea

Norbolsako analistek urte honetarako erabiltzen dituzten datuen arabera, urtean zehar "beheranzko bidea" egingo du burtsak. Hala ere, egoera "apurka normalizatzen" joango dela aurreikusten dute Europako Gobernuak, Europako Banku Zentralak sustatutako neurriei esker. Hala

eta guztiz ere, "zuhurtzia handiz aritu behar gara". Merkatuaren normalizazioa lortzean, "balore kartera osatzeko aukera interesgarriak agertuko dira burtsetan", Norbolsako adituen arabera.

**Iaz 2007an baino %50 gutxiago irabazi du Norbolsak**

Euskal Administrazio Publikoaren zorpen mailari buruz galdetuta, "hurrengo urteetan maila hori mantendu edo igo egin behar da", adierazi zuen Garmendiak, bide batez, "inbertsio publikoari dedikatutako aurrekontuak gora egingo baitute". Era berean, hurrengo hilabeteetan euskal enpresa handiek beren fituzten datuen arabera, urtean zehar "beheranzko bidea" egingo du burtsak. Hala ere, egoera "apurka normalizatzen" joango dela aurreikusten dute Europako Gobernuak, Europako Banku Zentralak sustatutako neurriei esker. Hala

## ITPk Airbus 350 hegazkinetarako turbinak ekoitziko ditu

ITPk lan-kontratua sinatu berri du Rolls Royce enpresarekin. Akordio horren ondorioz, ITP euskal enpresak A-350 hegazkin komertzialetarako presio baxuko turbinak diseinatu, ekoitzi eta mantenduko ditu. Horretarako, 250 milioi euroko inbertsioa egin beharko du ITPk, eta, lanaren truke, 4.900 milioi euro jasoko ditu. Horietatik, lehenengo 20 urteetan zehar 2.000 milioi euro irabaziko ditu. ITPren zuzendari nagusia den Ignacio Mataixen aburuz, kontratu hau "lorpen eta erronka

oso garrantzitsua da". Era berean, kontratu honek

**2.000 milioi euro irabaziko ditu ITP-k**

"esfortzu finantzario nabarmena" betetzera behartuko du ITP, eta, horren ondorioz, finantziarioa lortzeko mekanismoak aztertzen dihardu gaur egun.

%20ko aurrezpena

Lehenengo motorra 2010ean izango dute prest, eta hortik urtebetera izango da turbina berrien lehenengo hegaldi erreala. Aurten hasiko dira inbentarioak turbinen diseinuetan, eta, hemendik bi urtera, lehenengo prototipoak aurkeztuko dituzte. Ekoizpen aurreko lehenengo fasean 200 lagunek hartuko dute parte. Hegazkinetako motoren soinu-aztarna murriztea ahalbidetuko du turbina berriak, bai eta errengarriaren kontsumoa murriz-



Lan kontratu honek 250 milioi euroko inbertsioa suposatuko du

tea ere. ITPren datuen arabera, berrikuntza honekin,

hegazkin-konpainiek %20 aurreztuko dute.

## ALBISTEAK

## 100 enpresari 36 milioi euroko likidezia gehitu die Eusko Jaurlaritzak, ELKARGIren bidez

Eusko Jaurlaritzak onartutako 500 milioi euroko finantziario lerro berezitik 400 milioi euro kudeatuko ditu ELKARGI-Elkarrekiko Garantia Elkarrekin, Gasteizeko Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz. Gaurdaino, ELKARGIko bazkide diren 100 enpresa txiki eta ertain inguruk finantziarioa lortu dute, 36 milioi euro eskuratu baitzituzte dagoeneko. Akordio honi esker, euskal enpresek likidezia eskuratu ahal izango dute. Horretarako, zenbait baldintza bete behar dira. Lehenik eta behin, ELKARGIko bazkide izan behar du enpresak, horretarako 400 euro inguruko ordainketa eginez. Ondoren, ELKARGI gehaztutako irizpideak bete behar dira eta Eusko Jaurlaritzaren onarpenaren ostean, diru eskabidea euskal kutxa eta banketxeen bidez bideratuko da.

Finantziario honetan, Eusko Jaurlaritzak arriskuaren %90 bereganatuko du eta arriskuaren %10, berriz, ELKARGIren esku geratuko da. Finantziario lerro berezi honen komunikabideen aurreko aurkezpenaren, Victoriano Susperreguik eta Jesús Alberdik, ELKARGIko presidentek eta kontseilari ordezkariak, hurrenez hurren, "eskaria nabarmena izan da, diru behar handia dagoelako", adierazi zuten. Izan ere, 100 espediente baino gehiago aztertu eta onartu dira lehen bi hilabeteetan; hain zuzen ere, operazio horiek 36 milioi eurokoak izan dira.

**Irabazien %60ko beherakada**

2008ko datuak aztertu zituzten prentsaurrekoan ELKARGIko arduradunek. Iaz, euro eremuko herrialdeek izandako hazkundeak %0,9koa



Victoriano Susperregui eta Jesús Alberdi, ELKARGIko presidentea eta kontseilari ordezkaria, hurrenez hurren

izan omen zen, %1,2koa espainiar Estatuan eta %2koa Euskadin. Elkarrekin erabiltzen dituen datuen arabera, 2009an euskal ekonomia "%0,5 inguru hazi liteke". Egungo alderdi positiboen artean, "interese-tasaren jaitziera euro eremuan, erregaiaren eta lehengaien beherakada eta euroaren eta dolarraren arteko parekotasuna" adierazi zituen

**2007an baino %60 gutxiago irabazi du ELKARGIK**

ELKARGIko presidentek. Inbertsio publikoen bizkortzea eta kontsumoa pizteko neurriak hartzeko deialdia izan zuten hizpide elkarteko buruek, horiek "zorpetze publikoa eta defizita bera areagotzea badakarte ere". Familiei eta enpresei kreditua gehitzea funtsezkotzat definitu zuten, eta horren barnean kokatu zuten Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioa.

**Plusbaliorik ez**

Era berean, 2008ko emaitzak ere aurkeztu zituen

## Euskadiko Kutxak %45 gutxiago irabazi du Lehman Brothersen porrota dela eta

Lehman Brothersek pasa den irailean izandako porrotaren ondorioz, Europako finantza-erakunde ugari ere galerak izan dituzte, AEBetako banketxearen kutsutako akzioak erosi zituztelako; horien artean Euskadiko Kutxa dago. Arrasateko egoitza nagusian izandako prentsaurrekoan, 2008. urtean beraien irabaziek %45eko murrizketa izan dutela onartu zuen Euskadiko Kutxako presidente Juan Maria Otegi. Horrela, bada, pasa den ekitaldian izandako irabazi gordina 100,5 milioi eurokoa izan zen, 2007. urtean baino 84 milioi euro gutxiago, alegia. Lehman Brothersen galerei dagokienez, 162 milioi eurokoak izan ziren. AEBetako banketxe horri dagokion galera horren %75 dagoeneko errekuiperatuta dagoela aurreratu zuen Otegi.

**%11ko hazkundera**

Euskadiko Kutxaren negozioak %11,5eko beherakada izan zuen iaz. Arrasateko bankuaren baliabideek, ordea, %11ko hazkundera izan dute. Hori dela eta,

Otegi "garapen baikorra" hitzekin definitu zuen 2008. urtea. Kutxaren berankortasun maila %1,24ra iritsi zen, 2008ko batez bestekoa %2,21ekoa izanda. Erakundeak ia 2 milioi bezerorekin itxi du urtea, horietatik %23 Euskadi eta Nafarroatik kanpokoak izanik. 2008an, Euskadiko Kutxak 12 sukurtsal urtean beraien irabaziek %45eko murrizketa izan dutela onartu zuen Euskadiko Kutxako presidente Juan Maria Otegi. Horrela, bada, pasa den ekitaldian izandako irabazi gordina 100,5 milioi eurokoa izan zen, 2007. urtean baino 84 milioi euro gutxiago, alegia. Lehman Brothersen galerei dagokienez, 162 milioi eurokoak izan ziren. AEBetako banketxe horri dagokion galera horren %75 dagoeneko errekuiperatuta dagoela aurreratu zuen Otegi.




Lehman Brothersen porrotaren eragina pairatu du Euskadiko Kutxa

## ALBISTEAK

# Prestakuntza eta nazioartekotzea proposatzen ditu Gipuzkoako Bazkondeak krisiari aurre egiteko

Gipuzkoako Bazkondeak enpresetako langileen heziketa eta merkatuen dibertsifikazioa proposatzen ditu gipuzkoar ekonomia suspertzeko irtenbideen artean. Komunikabideen aurrean egindako aurkezpenean, krisialdiaren aurrean "egiturazko aldaketa bat dakarten neurriak" jarri behar direla martxan adierazi zuen Jose Maria Echarrri Gipuzkoako Merkataritza Ganberako presidentea. Era berean, lehiakortasun maila igo behar dutela ohartarazi zien gipuzkoar enprese. Hori dela eta, "prestakuntza" aipatu zuen hura lortzeko moduetako bat bezala. Ildo horre-



ITURRIA: GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

**Langabezia tasa "%7ra iritsi daiteke" Gipuzkoako Lurralde Historikoan**

baita "langabetuei zuzendutako egitasmoak" ere.

**Nazioartekotzearen beharra**

Eguno baldintza ekonomiko latzei sendoago aurre egiteko, nazioartekotzearen garrantzia azpimarratu zuten Gipuzkoako Bazkondeko arduradunek. "Enpresa ez nazioartekotzeak arrisku handiagoa dakar",

adierazi zuten erakundeko buruek, eta. Ildo horretan, enpresak animatzeko "nazioartekotze plan estrategikoak egiteko hausnar eta prozesuetarako laguntza eskaintzen du Bazkondeak". Horrekin batera, enpresen nazioartekotzearen helmugak egokitzeko beharrean jarri zuen arreta Bazkondeko presidentea den Echarrri; "gipuzkoar esportazioen ia %70 Euro-

par Batasunera zuzenduta dago", eta "gorantz doazen India, Txina, Errusia, Brasil eta Ekialde Ertaina bezalako herrialdeetara irekitze lana egin behar da".

**Datuak**

Datuei erreparatu, Gipuzkoako Bazkondeak aurreikusitakoaren arabera, BPGren hazkundera %0,2koa izango da 2009an, gehienez jota.

Lan mundua izango da krisiaren eragin zuzenena jasango duen arloa. Iazko ekitaldiko batezbestekoa %3,3koa zen; urte honen amaierarako, ordea, langabezia tasa "%7ra iritsi daiteke". Eraikuntzak, bestalde, hazkunde negatiboa izango du eta industria eta zerbitzuek "dezelerazio sakona" jasango dute. 2008ko hazkunde ekonomikoa %2,1koa izan da, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala. Lehengaien prezioaren jaitsierek "bake pixka bat" ekarri diete presio inflazionistei.

**Finantza-erakundeentzako mezua**

Gipuzkoako Bazkondeak "bere kezka" adierazi zuen euskal erakunde publikoek "nazioartekotzeari dagozkion aurrekontu publikoak murriztu dituztelako", baita enpresen "komertzializazio gastuak" ere. Honekin batera, finantza-erakunde jokoerari buruzko iritzia agertu zuen Bazkondeko presidente Echarrri, hala nola, "finantza-entitateak gehiago arriskatu behar luketela egiten ari direna hazkundera baino", gainera, diru-laguntza publikoak jasotzen ari direla jakinda.

## Munduko enpresen %47k langileen kopurua murriztuko dute

Munduko enpresen %47k bere langile kopurua murriztuko duela azalarazi du Ernest&Young enpresak nazioarteko 250 enpresabururen artean egindako inkestak. Horietatik %77 beren negozio-prozesuak hobetzerantz bideratuko dituzte euren lan-indarrak

eta %60 beren hornitzaileei zuzendutako aurrekontuak murriztera.

**Jardunaldiak**

Kontsultaturiko enpresen %90ek murrizketa-neurriak bizkortzerantz behartuta ikusi du bere burua, merkatua-

ren baldintzetara egokitzeko asmoz. Enpresako sail guztietan eragina duen murrizketa-politikak aplikatzen ari direla adierazi dute erantzun dutenen %43k. Horrela, bada, gastuak egonkortzeko politika hauen arrazoiaren artean, nazioarteko enpresabu-



Zuzendaritzaren Aurrerakuntzarako Elkarteak (APD) jardunaldietako hizlariekin

ruek "lehiakortasuna hobetzea" eta "errentagarritasuna irabaztea" aipatu dituzte. Bilboko Euskalduna Jauregian antolatutako jardunaldietan, Zuzendari-

tzaren Aurrerakuntzarako Elkarteak (APD) inkestaren emaitzak aurkeztu zizkien Euskadiko enpresaburuei, aipatutako Ernest&Youngen lankidetzarekin.

## I+G+i ALBISTEAK

### TECNALIAk ibilgailuen segurtasuna hobetzeko lanean dihardu



Alboko inpaktuek eragiten dituzten kalteak gutxitu nahi ditu TECNALIAk. TECNALIA Korporazio Teknologikoko automobilgintza-unitateak, GESTAMP enpresarekin lankidetzan, ADAPTA izeneko proiektuan parte hartuko du, etorkizuneko ibilgailuen segurtasuna hobetzeko asmoz. Alboko talkak gertatuz gero, ibilgailuen segurtasuna hobetzeko sistemak, prozesuak eta materialak garatzea du helburu proiektu honek. Horretarako, hainbat fabrikazio-prozesu aztertuko dira, analisi-kontzeptu berriak garatuz. TECNALIAk alboko egitura moldakorren arkitektura berriak birtualki modelizatu eta baliozko-

tuko ditu, alboko inpaktuek ibilgailu bateko bidariari eragiten dizkieten kalteak gutxitzeko asmoz.

#### Lankidetzak GESTAMPekin

CENIT egitasmoaren barnean, ADAPTA ibilgailuen babesa hobetzeko sortu da. TECNALIA GESTAMPekin batera ari da ikerketa horiek egiten. Ibilgailuentzako osagaiak eta euskarri metalikoak garatzen eta fabrikatzen dituen nazioarteko taldea da GESTAMP. Munduko 17 herrialdeetan dago presente, eta, guztira, 11.750 lagunek baino gehiagok lan egiten dute taldean.

### SPRIK eta Innobasquek euskal berrikuntza sustatzeko hitzarmena sinatu dute

Euskadiko bigarren eraldaketa ekonomiko eta sozial handia bultzatu eta sustatzeko asmoz, Industriaren Eraldaketa eta Sustapenerako Baltzua SPRIK eta Berrikuntzaren Euskal Agentzia Innobasquek aliantza bat sinatu berri dute. Hitzarmen honen bitartez, berrikuntza gaitako estrategia esparru publiko-privatuaren barnean garatuko da. Bi erakundeek berrikuntza sustatzeko gaitasuna eta erantzukizuna dau-

katen beste eragile batzuekiko koordinazioa sustatuko dute, indarrak batu eta berrikuntzaren gunean Europako erreferente bilakatzeko ekintzak ugaritzeko asmoz. Innobasque irabazi asmorik gabeko elkarrekin berrikuntza proiektuak abiarazteko asmoz, 1.005 antolakunde hartzen dituela bere baitan. SPRIK, bestalde, laguntza eta aholkularitza ematen dien baltzua da, euskal enpresei administrazio publikoaren programa aktibo guztiak eskainiz.

### Nafarroako esnearen AFM1 toxina-kantitatea ez da kezkarria

Urtebete iraun duen ikerketaren ondorioz, Nafarroako esneak AFM1 toxina naturalaren kantitate esanguratsuak ez dituela ondorioztatu du Nafarroako Unibertsitateko Zientzien Fakultateak. Nafarroako Foru Erkidegoko 40 ustiategi aztertu eta gero, aztertutako esnearen AFM1 toxina-kantitatea "kezkarria" ez dela adierazi du Ester Gómez Arranz kimikariak.

Toxina horrek batez ere esne gordinean nahiz haur jaioberrientzako zenbait formulatan izan lezakeen eraginaren azterketan oinarritu da Kimika eta Edafologia sailean egindako lana. "Haur jaioberrien formulazio horiek araudi zorrotza dute, eta maila baxuenak eman zituzten aztertutako guztien ar-

tean", azpimarratu du Ester Gómezek. Jogurtak, esneki funtzionalak, gaztuak eta abarrak ere esnekien talde segurua dira, toxina horren edukari dagokionez.

#### Gibekeko tumoreekin erlazioanuta

Azterketaren arduradunek toxina hori atzematearen "garrantzia" ohartu dute, gibekeko tumoreen garapenerekin zerikusia omen baitu. "Horregatik, toxina-kontzentrazio maximoak arautu zituen Europako Batasunak", adierazi dute ikertzailuek. Nafarroako Unibertsitateko ikertzaile talde honen araberak, kutsatutako esnea kontsumitzailereengana iritsiz gero ere, substantzia

kaltegarria kontzentrazio-maila seguruen barnean dago, egindako ikerketek erakutsi dutenez. AFM1 substantzia animaliek AFB1



Nafarroako esnea urtebetez aztertu dute

toxina kutsatutako pensuak jatearen ondorioz beren metabolismoetan sortzen duten toxina da.

### La 50.000 euro musika atonalaren ulerkuntza eta sustapenerako

Musika atonala hobeto ulertzen eta hedatzen lagunduko duen azterlana hiru urtez garatzeko dirulaguntza lortu du Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Espainiar Estatuako Gobernuako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak bideratutako 49.610 euroko finantzaketaren bidez musika-pertzepzioa ebaluatzeko eta garatzeko taldeak "Entzumena, eza-gupena eta emozioa goimailako musika-ikasleek musika atonala interpretatzeko" izenburuko egitasmoa garatuko du.

#### Azterlana, 12 kontserbatoriotan

Goi-mailako kontserbatorioetan musika atonalari buruzko azterlana sustatzea litzateke ikerlan honen xedea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Musika Saileko arduradunen aburuz; "musika ato-



Musika atonalaren zaitasunak aztertu nahi ditu ikerketa horiek

nala urrundu egiten da tonu-sistemak ezarritako arauetatik" eta "XX. mendearen hasieran hasi zen garatzen", musika-diskurtsoaren bilakaera gisa, hain zuzen ere. Helburua betetzeko, espainiar Estatuako goimailako 12 kontserbatoriotan egingo da azterlana, "Musika-interpretazioa" espezialitatea ikasten ari diren 80 ikaslerekin. Informatika-programa

zehatzen bitartez, grabatutako informazioaren azterketa psikoakustikoa egingo da, eta, ondoren, bildutako informazio hori aztertu egingo dute. Musika atonalak zailtasun ugari ditu gaur egun gainera kontzertuetan garatu ahal izateko, eta azterlan honek balizko zailtasunak aztertu nahi ditu, hobeto ulertzen eta hedatzen lagunduko.

## HILEKO GRAFIKOAK


### 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gko Gastua Barne Produktu Gordinarekiko

Ikerketa eta Garapen Teknologikoko Jardueren estatistikaren arabera, Debagoiena da 2007. urtean I+D proiektuetan BPGrekiko gasturik altuena izan duen eskualdea, %4,42rekin, alegia. Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gko gastuaren batez bestekoa (%1,65) sei eskualdek gainditzen dute, lau Gipuzkoako Lurralde Historikokoak izanda.

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.



### Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ekoizpen Indizearen hiruhilabeteko hazkundea



Euskal ekoizpen industrialak %21,5eko beherakada izan du 2008ko abenduan. Industria-kontzentrazio tasarik altuena biltzen duen Lurralde Historikoa, Arabak, hain zuzen ere, ekoizpen industrialaren %25,8ko beherakada izan du, enplegu-erregulazioko espediente ugari bultzatuta. Bizkaia eta Gipuzkoak, bestalde, %19,9 eta %20,9ko beherakada izan zuten, hurrenez hurren.

Iturria: EUSTAT.

**Entra, estamos abiertos.**  
**Toda la información sin barreras en deia.com**

## ELKARRIZKETA

## Arantza Matías

BILBAO DENDAK elkarteko presidentea



*Hiriko merkataritzaz ongi jabetuta dago Arantza Matías. Txikitatik merkatarien gorabeheretan hezia izan da, izan ere, Bilboko Alde Zaharreko oihal-denda famatuenetarikoaren jabea du aita, Rafael Matías jauna, hain zuzen ere.*

*Gaztea izanagatik ere, Arantza esperientziadun emakumea dugu, eta Bilboko komertzioen inguruko gakoen berri Ekonomiaren Kazetaren bitartez eman nahi izan du.*

Merkealdiak amaitu berri dira, zer-nolako balorazioa egiten du Bilbao Dendak?

Merkealdietako kanpaina primeran hasi zen, ondoren mantendu, eta azkeneko parte normaltasunean garatu da, batez ere kontuan izanda bizi garen momentu ekonomiko zaila. Egin diren kanpaina erasokorrek kontsumitzaileen onurarako izan dira, aukeratzeko asko zegoelako eta, gainera, oso prezio lehiakorretan. Merkatarien aldetik, denetarik dugu, baina, orokorrean, komentatzen digute okerra izan den garaia neguko izan omen dela. Urritik abendura doazen hilabeteetan asko nabaritu da salmenten beherakada. Merkealdiak ez dira txarrak izan, baina deskontu hauekin merkatariek sobera duten stocka kentzea besterik ez dute lortu. Ekonomikoki errentagarritasun gabeak dira merkealdiak, aurreko kanpaina on batekin batera ez badator.

Sasoi berria hasita, zeintzu aurreikuspenak maieiatzen dituzue?

Ditugun aurreikuspenek ekonomia egoera orokorren antza dute. Egoerak ez du baikortasunera gonbidatzen. Kontsumoaren murrizketa emango da. Horren lehenengo kaltetua komertzioa izaten omen da. Ez da logikoa egoera latza dela ukatzea. Beherakada honek merkatariek ezustean berriro ez hartzea espero dut. Izan ere, neguko hilabeteetan izan genituen salmenten jaitzierak espero gabe hartu gintuen. Bat-batean behera jo zuten etxe, kotxe,



Arantza Matías Bilboko Alde Zaharrean duen oial-dendan

**“Jai-egunetan ez irekitzea erabakitzen duten merkatariek errespetu osoa merezi dute”**

eta abarren salmentek. Krisialdia antzematen bazen ere, errealitatea oso era zakarrean azalarazi zitzaigun. Oso normaltzat

hartzten dugu diru-sarrerak murriztuta ikusi dituzten lagunek euren kontsumoa moteltzea. Kontua da diru-sarrerak mantentzen di-

tuztenak ere gutxiago kontsumitzen ari direla, egoera ekonomikoak bultzatuta. Horiek zuhurragoak bihurtu dira. Antza, egungo

egoerak zuhurtiaz aritzera bultzatzen gaitu, eta askok hori praktikan jarri dutela ematen du. Horren aurrean zera esan dezaket, Bilbao Dendak elkartetik erantzukizunezko kontsumorako deialdia egin dugula behin eta berriro, hau da, bakoitzak ahal duenaren arabera kontsumitzea, inguruaren mesederako.

Bilbao turistikoaren ideia jai-egunetan ematen den merkataritzaren itxiera-rekin bateragarria al da?

Bateragarria da Bilbora iristen den turismoa, momentuz behintzat, negoziokien erlazioan dagoelako. Bisitatzen gaituen turismoak nahikoa du astelehenerik larunbatera irekita egotearekin. Gero, urtean zehar inportanteak diren datak ditugu, Aste Santua, besteak beste. Egun zehatz horietan irekitzera animatzen dute Bilboko Udaletik, baina horrek beste sektore batzuegan izaten omen du eragina, ostalaritzan, esaterako, merkataritza-guneetan baino askoz gehiago.

Ostalaritzak erabaki du, printzipioz, ez duela apirilko egun santuetan irekiko. Aste Santuan zehar Bilboko komertzioek ere itxiko dute?

Kolektiboki, antza denez, ostalaritzak ez du era masiboan irekiko. Azken erabakia negozio eta jabe bakoitzaren esku geratuko da, ireki ala ixtea erabaki boluntarioa baita. Iaz bezala, aurten ere irekita egongo diren merkataritza-establezimenduen zerrenda prestatuko du Udalak, eta turistei informazioa eskaini.

## ELKARRIZKETA

Aste Santuan komertzio batzuk irekita egongo dira eta beste batzuk itxita, bakoitzaren arabera.

**BilbaoCentro bezalako elkarte batzuek eguerdian irekitzearen beharra antzeman dute. Zein behar jaso ditu Bilbao Dendak kontsumitzaileen aldetik?**

Alternatiba interesgarria izan daiteke eguerdian irekitzea, batez ere Bilboko zonalde batzuetarako. BilbaoCentro elkarteak denbora darama bere bazkideak eguerdian irekitzera animatzen. Ordutegia luzatzeko irtenbide ona izan daiteke. Emaitzak aurrekustea ezinezkoa da, ireki eta bi hilabetez-edo frogatu arte.

**Komertzioen jai-egunetako itxialdiak ikamika ugari sortu du historikoki Bizkaian.**

Oihartzun gehiegi antzeman dut komunikabideetan jai-egunetan ireki ala ez auziaren inguruan. Ez dut uste hainbesteko denik, azken finean, urtean 12 jai-egunetz soilik ari gara. Jai-egunetan irekitzea interesgarria izaten da, adibidez, data garran-

tzitsu baten bezpera deanean, merkataritza-estrategia batean kokatuta. Merkatarari bakoitzak uste badu salmentaren bat egin dezakeela, bere negozioa ireki dezake, saltzearen aukera, betiere, interesgarria delako. Aldi berean, ez irekitzea erabakitzen dutenek ere errespetu osoa merezi dute, negozio bakoitzaren nortasuna desberdina delako eta, sarritan, jai-egun horietan irekitzea zaila egiten zaielako, langileekin txandak egin behar dituztelako, besteak beste.

**Zer-nolako eragina du sindikatuen presioak merkataritza-guneetan?**

Presio sindikalak eragina duela ukazina da. Sindikatuek beren printzipioak aldarrikatzeko eskubidea dute, baina gauza guztien gainetik errespetua gailendu behar da. Onartezina da ireki nahi izan duelako denda bat paperezatzea. Azken finean, kontuan izan behar da enpresaburu gehienak langileak direla aldi berean. Egin behar duguna da legeari so egitea. Legeak dio urtean 12 jai-egunetan ireki dezakegula. Hori kontuan har-



Rafael Matias dendak nazioarteko jostunentzako oihal aginduak prestatzen ditu

tuta, bakoitzak erabaki dezala. Guztiok itsasontzi berean goaz, eta batu egin behar gara, lanpostuak mantendu ahal izateko eta guztiontzako aberastasuna lortzeko.

**Bilboko Udalak hiriko komertzioen kontsumitzaileen iritzia jaso du azken asteetan. Inkestaturiko %82k "atseginez" definitzen ditu hiriko komertzioak. Aztertu beharreko ondorioak izango dira ikerketa honen emaitzak.**

Halaxe da. Bilbotarrek oso nota altua ematen diote gure merkataritzari. Emaitzek erakusten dutenez, barrietatea, garraibide publikoen bitartez Bilbora heltzeko erraztasunak eta zerbitzuak, besteak beste, azpimarratzen dituzte kontsumitzaileek. Gaur egun, denetarik du Bilbok. Hori dela eta, nahitaez egin behar diren eroketak hiriko merkataritza-gunetan egitera animatzen dugu jendea. Hirian, komertzioek beste faktore bat supo-

satzen dute. Hirian paseatu dezakezu, bertan bizi, eta abar, baina merkataritza-gune handiek erosteko aukerak eskaintzen dituzte bakarrik. Betiko auzoko komertzioetan erostea merkeagoa izaten dela uste dugu, behar duzuna bakarrik erosten duzulako eta, horrez gain, ezagutuzen zaituztelako eta horren balioa erantzen diolako. Hiriko merkataritza-dendetan erostea errentagarriagoa den iritzikoa naiz.

## "Hiriko eta kanpoko komertzioa bizikide dira"

Bolkestein europar direktibak aukera ematen du saltoki handiak edozein lekutan ezartzeko, biztanle kopurua eta oihiturak kontuan hartu gabe. Direktiba hau merkataritari erantzen eta txikien kalterako ote da?

Horri mugak jartzen ez badiozkiogu, bai; printzipioz, merkataritza-zentroak askatasunez ezartzea ahalbidetzen du Europako direktiba honek. Europako Parlamentuan onartutako lege honek, hitzez hitz aplikatzen bada, lehiakor-

tasun erabat librea ekarriko luke. Lege honen aplikazioa Autonomia Erkidego bakoitzaren udalen eskumenean utziko du Europar Batasunak. Horren ondorioz, garapen iraunkorra erabiltzen da aitzakiatzat, nolabait esanda, merkataritza-zentroen kopurua mugatzeko asmoz. Ingurumenaren babesaren irizpideak erabili ohi dira merkataritza-zentro handi hauen ezarpena modu batean edo bestean geldiarazi ahal izateko. Era berean, beste gauza bat ere hartu behar dugu kontuan, zentro erraldoi hauek negozioa dagoenean ezartzen direla, alegia. Egun, eskaintza gainaseta dago, eta ez dut uste alde ho-

rretatik etorkizuneara arazorik izango dugunik.

**Zein izango da hiriko komertzioaren etorkizuna? Merkataritza-zentro handien lehiakortasunaren menpean etsi dezake?**

Horren inguruan teoria ugari daude. Gaur egun, hiriko eta kanpoko komertzioa bizikide direla uste dut. Saltoki-gune handiak gutxi ditugu gure artean. Berritasuna bezeroak erakartzeko faktorea da, eta, hori dela eta, kontsumitzaileek haiengana jo dute. Behin merkataritza-gune handien berritasuna gaudituta, kontsumitzaileek betiko komertzio-tara jo dute berriro ere, merkatarien elkartei es-

ker, bereziki. Gaur egun, eskaintza bikoiztuta dagoela uste dut. Izan ere, merkataritza-zentroek hiriko eredu kopiatzen dute. Egun, 17.000 lagunek egiten dute lan Bilboko merkataritzan. Enplegu zuzenaz aparte, lanpostu ez-zuzen ugari sortzen dituzte Bilboko merkatariek. Komertzioa hiriko lehenengo enpresa bihurtu da, sortzen duen kapitalari eta enpleguari erreparatzen badiegu. Eskariaren eta eskaintzaren arteko erakarik ez dagoela esan genezake. Izan ere, eskaintzaren ugaritasuna dugu gaur egun. Horregatik, eskaintzaren eta eskariaren oreka bilatu behar dugu, baina zaila izaten da.



1957. urtetik merkataritzaren zokoak aski ezagutzen ditu Matias Familiak

## ERREPORTAJEA

# Getxoko komertzioa, merkataritza bizkaitarraren isla

*Krisialdiaren eraginez eman den kontsumoaren moteltzeak kalte zuzena egin die hiriko komertzio tradizionalei. Estatistikarako Institutu Nazionaleko datuen arabera, komertzio txiki eta ertainen salmentek %5 egin zuten behera 2008ko azken hiruhilabeteetan. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ingururen isla izan daitekeenez, Ekonomiaren Kazeta Getxora hurbildu da merkataria ordezkatzen dituen elkartearen inpresioak jasotzeko asmoz, eta, horren haritik, egungo baldintza ekonomikoetara buruz eta komertzioaren garapenari eta etorkizunari buruz mintzatu da.*

Merkatarien alor ekonomikoak Getxoko ekonomia-aren %19 suposatzen du. Uribe Kostako inguru honek 1.300 saltoki baino gehiago ditu egun. Industria eza nagusi izanda, komertzioak zutabe ekonomiko garrantzitsua dira. Garrantzi hori berrindartzen dabil ostalaritza, zerbitzuak eta merkataria barne hartzen dituen elkarte nagusia, Getxo Enpresa eta Merkataritza (GEYC), hain zuzen ere. Komertzio getxotarrak Bizkaiko merkataritzaren nortasunaren antza du, "ez idatzizko hitzarmenaren" jai-egunetan ez irekitzeari dagokionez, behintzat. "Bizkaiko beste inguruetan ematen den joera bera dugu Getxon", azaldu du Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteko zuzendari kudeatzailea den Nuri Ruiz de Hillak, "orokorrean, ez irekitzearena, alegia". Betidanik jarraitutako joera hau eustera datoz euskal Administrazio Publikoek eta zenbait erakunde kaleratutako txostenak. "Kontsumitzaileen ohiturei buruz Eusko Garberak eta Eusko Jaurila-

ritzak plazaratutako txostena joera hori indartzera dator", argitu du Nuri Ruiz de Hillak, hau da, "bezeroek euren beharrak sobe-rra aseta dituzte egungo ordutegi komertzialarekin".

## Irekierak, krisiak bultzatuta

Krisiak bultzatuta, komertzio askok euren atea ireki dituzte urteko data zehatzetako bezperetan, aurreko hilabeteetan izan ez dituzten zenbait salmenta berreskuratzeko asmoz. "Ireki duten komertzioek egungo egoera ekonomikoak bultzatuta egin dutela esango nuke", onartu du Nuriak. Krisi garaian "bezeroak erakartzeko erraztasun handienak" eskaintzearen alde agertzen da elkarte getxotarraren kudeatzailea. Hala ere, egungo baldintzetan ordu gehiago irekitzearen kontrastesana plazaratu du, "egungo ordutegiarekin bezeroek orain arte primeran kontsumitzen bazuten eta beraien beharrak asetzen bazituzten, ez dut beharrezkoa ikusten ordutegia



Nuria Ruiz de Hilla, elkarteko egoitzan

luzatzea", azaldu du Nuriak, "krisi garaian kontsumo moteldu egiten delako eta salmentek behera egiten dutelako". Irekieraren aukera bideragarriagoa ikusten du Nuriak oparoaldi garaian, "gastuaren eskari handiagoa izanik, errazago uler zitekeen komertzioaren ordutegiaren luzapena". Bestela esanda, "egoera normal batean eskaria egoki ase-

badugu", argitu du Getxoko elkarteko kudeatzaileak, "kontsumoaren murrizketa ematen denean, ez du inolako logikarik ordutegia eta zerbitzu horiek luzatzea". Desadostasuna erakutsita, Nuriak bere kezka ere adierazten du, "banakako irekiera hauek merkataritza sektoreari ekar diezazkiokeen ondorio negatiboak behar bezala baloratu diren

zalantzan nago". Ondorio txar horien artean, Nuriak zera aipatzen du, komertzio txikiak jai-egunetan irekitzeak "merkataritza-gune handiek berbera egitera bultzatzea", alegia. Honen ondorioz, "hemendik gutxira guztion kalterako izan daitekeen dinamika batean murgildurik aurkituko gara", aurreikusten du Nuriak, ezkor.

## Azken kanpainaren balorapena

Merkealdiek urte osoko salmenten termometro modura funtzionatu dute. Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartearentzat amaitu berri diren urteko lehenengo merkealdiak "aurreko egoeraren isla" izan dira. "Merkealdietan stocka batez ere ateratzen omen dute", azaltzen du Nuriak. Salmenten beherakadari dagokionez, "zifrarik ez dugu", argitzen du. Izan ere, Getxoko elkarte honek ostalaritza, zerbitzuak eta komertzioak bezalako sektore desberdinak barneratzen ditu eta

gaurko baldintzek aldagai asko ekartzen dituzte. Nuriaren ustez, "bizi garen egungo egoera ekonomikoan, sektore batzuk beste batzuk baino sentikorragoak izaten omen dira". Merkatarien partez elkarteko arduradunengan helden ari den ustea "egoera zail batean gaudela" omen da, "kontsumoaren moteltze joera argi antzeman dugu". Joera hau, "ez doa inoren onurako, ez komertzio txikientzat ezta merkatal-gune handientzat ere", zehazten du Nuriak.



Getxoko komertzio eta turismoarako aukera "paregabeak" eskaintzen ditu

## ERREPORTAJEA

### Elkartearen nortasunaren aurka

Beste merkatarien elkartearen epeltasunaren aurrean, beraien kabuz negozioa ireki dutenen jarreraren aurka desadostasun garbia erakusten du Getxo Enpresa eta Merkataritzak. "Jai-egunetan irekitzea ala ez merkatarik bakoitzak bere kabuz erabakitzea merkatarien elkartearen nortasunaren beraren kontra doa", dio Nuriak, "bakoitzak bere uste nahiz eskubideen parterren bati uko egitearen beharren oinarritzen baita asoziazionismoa". Komertzio bakoitzaren izaera desberdina izanda, Nuriaren ustez, "banakotasun horiek zertxobait etsi behar dute multzoaren menpean, lagun multzo baten onurako", hain zuzen ere.

Ika-mika handia sor dezakeen ordutegien luzapenari bitarteko irtenbidea eskaintzeko asmoz, Bilbao-Centro bezalako merkatarien elkarteek eguerdian komertzioak zabalik mantentzearen proposamena euren bazkideen artean sustatu dute. Nuriak ez du ideia horren errentagarritasuna Getxon aurreikusiten, "Getxoko biztanleriaren zati handi bat lan egitera kanpora doala esango nuke", adierazi du, "egun osoa ematen dute Getxotik kanpo eta arratsalde nahiz gau aldera, eskualdera datoz bueltan". Horren ondorioz, ez dute ikusten, orokorrean, eguerdian komertzioak irekitzearen beharra, "lagun kopuru nahikorik ez baitugu". Horrekin batera, "ez du errentagarritasunik suposatzen, kostuen aldetik ikusita".

Euskadiko komertzioen ordutegiari dagokionez, merkatariei urtean 12 jai-egun irekitzea ahalbidetzen die Eusko Jaurlaritzaren arautegiak. "Neurri hori nahikoa dela uste dugu", baloratzen du Nuriak; "espainiar Estatuko araudiarekin alderatuz, oso araudi ona iruditzen zaigu, hura murrizten baitu". Komertzio txikiak arautegi "onuragarria" dela uste du Getxoko kudeatzaileak.

### Getxo turistiko

Getxoko Udala eskualdeko turismoa suspertzen ari da. Aukera ugari eskaintzen dituen eskualdea da, eta gero eta gurutzaldi gehiago dute Getxoko portua helmuga bezala. Turista horiek Getxon mantentzeko, komertzioen ordutegia luzatu beharra adie-

**Eguerdian irekitzea, "errentagarritasunik ez"**

razi dute askok. Bateragarria al da Getxo turistiko, itxita mantentzen diren komertzioekin? "Gaurdaino, ez dugu turismoak ekarritako jendetzarik izan", onetsi du Nuriak; "horrela izatea nahi genuke guztiok!". Hori dela eta, horren beharrik eta eskaririk ez dagoenez, "momentuz, ordutegia mantendu egiten da". Hala ere, "ez diogu ordutegien moldaketari uko egiten, unean-uneo gizaruten aldaketen arabera". Nu-



Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartea Algortako metro geltokiaren ondoan kokatzen da

riaren aburuz, "Getxoko merkatarik behar berrieta- ra egokitzeko prest gaude".

### Krisialdiaren aurrean

Krisialdiaren aurrean neurri berezirik hartu ez dutela azaldu du Getxoko elkartearen buruak, urtean zehar prestatu dituzten kanpaina berberak sustatzen baitabilta; "hemengo komertzioetan kontsumitza animatzeko kanpaina egiten jarraitzen dugu, Getxoko biztanleei zuzendutakoak eta baita kanpoko bezero berriak erakartzeko ere", hala nola, "Uribe Kosta, Leioa, Sopela eta Plentziakoak". Eskualdeen arteko lehia ere mantentzen da; "Ezkerraldeko bezeroen kontsumo ere erakartzen ari gara", azaldu du Nuriak, "Getxok duen primerako eskaintzari esker".

Enpresa txiki eta ertainen lehenetarik beharra likidezia omen da. Nuriaren ustez, Getxoko komertzioek ez dute era masiboan jo finantza-erakundeengana diru eske, baina banketxeen

aldetik ezezo erantzunak ez izateko asmoz, Ipar Kutxa erakundearekin maileguak eskura ditzakete merkataritzagune getxotarrek.

### Euskara maila

**Euskara maila erdi mailakoa-baxua da**

Eusko Jaurlaritzak pasaden udan komertzioetan euskara sustatzeko kalera-tutako dekretuak eragin urria izan omen du Getxoko merkataritza-guneetan. "Guk dekretua zabaldu genuen gure bazkideen ar-

tean, ezagutarazteko", azaldu du elkartearen kudeatzaileak; "hasiera batean, informatu egin dugu eta zenbait zalantza argitu". Haren aplikazioari buruz, dekretuak oraindik ere zehaztu gabe dauden alderdi ugari dituela salatu du Nuriak, eta indarrean sartzean "zenbait sektoretan zailtasunak ekar ditzakeela" aurreratu du. Izan ere, Getxoko euskara maila erdi mailakoa-baxua omen da, "bai ezagutza baita erabileraren aldetik ere". Nahiz eta maila nahi-korik ez egon, ase gabeko beharrik ez omen dago; "Eusko Gaineren txostenaren arabera, kontsultaturiko %85-90 konforme sentitzen da komertzioetan erabilitako hizkuntzarekin, gaztele- rarekin, alegia", adierazi du Nuriak.

## Elkartea eta Udalaren arteko lankidetzaren harremanak

"Komertzioaren egoera eta eskaerei erabat sentikorra da Getxoko Udala", Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartea herrialdeko Administrazio Publikoekiko duen harreman zuzena erakusten du merkatarien elkartearen arduradunen adierazpen honek. Haien aburuz, "gure herrialdeko komertzio, zerbitzuak eta osalaritza sektoreen aldeko boluntatea erakutsi du Getxoko Udalak Ekonomia Sai-

lak sustatu duen Marketin Planarekin", helburua, "Getxo Enpresa eta Merkataritza gure herrialdeko erreferente komertziala izatea" izanda.

Bazkide kopuruari erreparatu, Bilbao-Centro elkartearekin batera "Euskadiko elkarerik nagusia da Getxo Enpresa eta Merkataritza". Asoziazionismoa bultzatzeko asmoz, "gure baliabideen zati handia auzi honi dedikatzen diogu".

## Hiriko komertzioa versus merkatal-gune handia

Artea merkatal-zentroa Getxon egonda, herrialdeko komertzioen bezeroak eraman ohi ditu? "Artea merkatal-zentroarekin primeran bizi dugu Getxon", adierazten du elkartearen kudeatzaile den Nuriak, "beste aukerak ez dituen aukerak eta eskaintza bereziak eskaintzen dituzte Getxoko komertzioek" uste du Nuriak. Haien artean lehiakortasun zuzenik ez dagoen irizkioa da, "bakoitzak

merkatuaren bere zatia baitu". Herriko komertzioaren etorkizunari buruz galdetuta, Nuriak argi du, "etorkizun osoa ikusten diot hiriko komertzioari", batetik "bere eginbeharra betetzen duelako" eta bestetik, "gainera, primeran burutzen duelako". Etorkizun hura garatu dadin, Nuriak ezinbestekoa ikusten du "elkartea eta Udalaren arteko lana", hots, "sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren".

## ELKARRIZKETA

## Marian Elorza

Eusko Jaurlaritzako Nazioartekotze Zuzendaria



*Euskal enpresen nazioartekotzea bultzatzea erakunde publiko guztien esku dago. Lan arduratsu honetan, euskal enpresei laguntzeko babes ekonomikoak eta azpiegitura arloko babesak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzaren Nazioartekotze Atalak. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak suspertzen duen atal honek aholkularitza-zerbitzua eta datu ofizialen ikerlanak bideratzen ditu. Nazioartekotze zuzendaria den Marian Elorzak euskal enpresen kanporatzeari buruzko gakoak eskaini dizkio Ekonomiaren Kazetari.*

Nazioarteko merkatu berriak arakatzea betidanik egon da euskal enpresen nortasunean. Zein da kanpora doazen euskal enpresen profila?

Bildu ditugun datuen arabera, atzerrira esportatzen duen ohiko euskal enpresa txikia izaten da, 50 langile baino gutxiagokoa, industria eta kanpo merkatuetan produktuak saltzen bost urte baino gehiago daramana. Enpresa multzo honen barnean, bostetik batek ezarpenen bat du atzerrian, eta ezarpen hori komertziala zein produktiboa izan daiteke.

Zenbakiei begira, zenbat euskal enpresa joan dira atzerrira euren negozioen zabalkuntza burutzeko? Zer-nolako fakturazioa dute?

Industria sektoreari begirata eta bildutako azken datuen arabera, 2.698 enpresa esportatzaile ditugu Euskadin. Beste modu batera esanda, enpresa industrialen %18 edota 20 langiletik gora dutenen %68. Fakturazioari dagokionez, argi dago atzerrian aritzea hazkunderako aukera dela. Izan ere, esku artean ditugun datuak oso esanguratsuak dira: esportatzaile ez diren enpresen %51,3k milioi 1 euro baino gutxiagoko fakturazioa du; esportatzaileen artean, berriz, %50,9k 1-10 milioi arteko salmentak egiten ditu, eta, bukatzeko, atzerrian ezarrira

dauden enpresen %51,4k 10 milioi eurotik gorakoak.

Zein garrantzi izan dezake enpresa baten internazionalizazioak bere negozioaren garapenerako?

Oso modu laburrean esanda, internazionalizazioak dakartzan ondorio positi-

kuntzak ezagutzea. Horrek guztiak enpresaren etengabeko hobekuntzarako grina ere suspertzen du.

Zer-nolako eragina izan dezake krisialdiak euskal enpresen nazioarteko hedapenean? Zabal-kuntza horiek geldiarazi ditzake egungo egoera ekonomikoak?

berriak irekitzea, besteak beste) moteltzen ari dira. Baina horrek ez du esan nahi proiektu horiek bertan behera geldituko direnik, atzeratu egingo direla baizik. Bestalde, 2009rako aurreikusitako promozio ekintzei begira (partehartzeak nazioarteko azoketan, merkataritza-bidaia atzerriko merkatuetara,

Negozio aukera interesgarria ekar dezaketen herrialdeen zerrenda aldatuz doa urtez urte. Zeintzuk izan daitezke, gaur egun, negozioa garatzeko atzerriko herrialde aproposenak?

Duela bi urte, etorkizunari begira euskal enpresentzat negozio aukera gehien eskaintzen zuten merkatuak identifikatzeko lan sakona egin genuen, besteak beste, datu estatistikoak zein irizkiak bilduz. Lan horren ondoren, lehenetasunez 9 merkatu identifikatu genituen: AEB, Txina, Txekiar Errepublika, Polonia, India, Mexiko, Brasil, Errusia eta Turkia. Horiekin batera, Europako lau merkatu handiak ere gehitu behar ditugu, Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batua, hain zuzen ere.

“Nazioarteko merkatuetan ari diren enpresek hobeto egiten diete aurre krisiari”

boen artean bi azpimarratuko nituzke. Alde batetik, hazkunderako aukera paregabea, merkatu zabalago batera bideratzen ditugulako geure produktuak nahiz zerbitzuak. Bestalde, hobekuntza eta berrikuntzarako motorra izan daiteke, atzerrian aritzeak sektoreko onenekin lehian aritzea baitakar, p u n t a - p u n t a k o t e k n o l o g i e n b e r r i i z a t e a e t a m e r k a t u r a t u t a k o b e r r i -

Logikoa denez, bizitzen ari garen egoera honetan, gure enpresen atzerriko inbertsioak (produktzio planta

eta abar), aurreko urtearekin konparatuta zertxobait murriztuko direla pentsatzea normala iruditzen zait. Hori bai,

enpresentzat lehenetasunezkoak diren merkatuetan jarduera maila mantendu egingo dela ere seguru nago. Egoera honek zerbait frogatu badu, zera da: nazioarteko merkatuetan ari diren enpresek hobeto egiten diete aurre krisiari, hain zuzen ere.

Aurrekontu ekonomiko handia behar dela-eta, internazionalizazioa euskal enpresa handien esku bakarrik dago?

Neurria ez da internazionalizazio ezarako arrazoiak, 2005ean atzerrira esportatzen ari ziren 20 langile baino gutxiago zuten 1.385 euskal enpresa industrialak horren lekuko baitira. Egia da enpresa txikiak baliabide gutxiago dituela, baina egoera honi aurre egiteko formulak egon badaude, esate baterako, esportazioarako partzuergo bezalako lankidetzak formula, bai eta laguntzak ere.



“2.698 enpresa esportatzaile ditugu Euskadin”, dio Elorzak

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...**



### **...maila handiko teknologiarekin**

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorragoak eta atmosferara CO<sup>2</sup> gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



[www.itp.es](http://www.itp.es)

Planta de Zamudio



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

## TEKNOLOGIA

## BLACKBERRY vs. IPHONE

Konpainien arteko lehia zorrotzu egin da azken hilabeteetan. Telefono mugikorren konpainiek bezero berriak lortu eta dagoeneko dituztenak gorde nahi dituzte eta horren ondorioz, tarifak ez ezik, eskaintzen dituzten telefono modeloetan ere berritzea ahalegindu dira. Horretan dihardu bai Movistar baita Vodafone ere atera dituzten azken punta-puntako teknologiko eskukoekin. Ezberdintasunak ez dira oso nabarmenak, baliabide anitzeko mugikorrek direlako. Biek ukimen-ahalmena eta Interneten aritzeko nabegatzailea potentea. Prezioan, bestalde, gora behera handiak egon daitezke, aukeraturako tarifa eta hileroko gutxienezko gastuaren araberakoa, 19 eurotik 449 euroetara.



Blackberry



Iphone

SALNEURRIA	19-449€	29-359€
PISUA	155 gr	135 gr
PANTAILAKO PIXELAK	480*360	320*480
NABEGATZAILEA	Vodafone Live!+GPS Finder&Go	HTML Safari+Google Maps
BARNEKO MEMORIA	1 Gg	4-8 Gg
KAMARAKO MP	3,2 Mp	2 Mp

## ARDOAK

## UZTA OPAROETAKO BELTZAK

Adituen aburuz, ardo-botiletan sosak gastatzea ez da xahututako dirua, baizik eta inbertitzen den dirua, artelanekin gertatzen den legez. Inbertsio hori ohikoa baino altuagoa izango den asmoz, garestiak baina bereziki onak izan diren uzten ardoen sailkapen berezia ekartzen dizkizuegu hilabete honetan. 1998 eta 1999 dira aukeraturako urteak eta hona hemen ardoak eta hauen dastapenean lagundu ditzaketen jakiak. Zeuen esku dago Espainiar estatuko ardo-adituekin bat zatozten erabakitzea.



AURUS ALLENDE

URTEA: 1998

PRIMERAN DOA:  
ahateko gibelaSALNEURRIA:  
90€

RODA II

URTEA: 1998

PRIMERAN DOA:  
bisonteko carpaccioaSALNEURRIA:  
100€

VIÑA SASTRE

URTEA: 1998

PRIMERAN DOA:  
eperra indabekinSALNEURRIA:  
78€

ARTADI

URTEA: 1999

PRIMERAN DOA:  
oreineko ragoutaSALNEURRIA:  
91,70€

## JATETXEA



Nazioarteko janari italiarra afari berezientzako aukera baino askoz gehiago dugu. Lana dela eta, etxetik kanpo jan behar dutentzat parada interesgarria suposatu dezakete jatetxe italiarrek. Asmo ho-

nekin ekartzen dizue Ekonomiaren Kazetak hilabete honetarako proposamena: Farfalle jatetxea. Donostiako erdialdean kokatuta, klimatizatuta dagoen terraza du jatetxeak, baita neguan ere Gipuzkoako kapitalaz gozatu ahal izateko. Beheko solairuan 35-40 pertsonentzako jantokia du. Bertan, kartaz nahi eguneroko menua hautatu dezakete bezeroek, erabat

## FARFALLE JATETXEA



Farfalle jatetxeko terraza

italiarraren den giro batean, alegia.



Carpaccio jatetxearen espezialitate bat omen da

## EGUNEROKO MENUA

- Orri berdeko entsalada hotzepela, gulak, laranja, intxaurrek eta mahaspasekin, ezti marrubiko olio-ozpinetan
- Roast-beefeko carpaccio, letxuga berdea eta hiru gaztako saltsarekin
- Pannacotta, fruitu gorriekin

Ogia eta edaria barne Asteleheneretik ostiralera, eguerdian bakarrik

GUZTIRA: 19,14€  
(pertsona bakoitzeko)

Farfalle Jatetxea / Askatasuna Etorbidea, 21 / 2004-Donostia (Gipuzkoa)  
Telf 943 426 054 / [www.farfalle.es](http://www.farfalle.es)

# AISIALDIA

## Estresari aurre egiteko hileko proposamena

### Smartbox®: Máxima emoción

Ausartentzako bereziki zuzendutako jarduerak barnertzen ditu hilabete honetako bonoak, Smartbox®: Máxima emoción. Ura, aire eta lurreko jarduera dibertigarri hauen artean aukeratu ditzazkezu:

- Hegaldiak aparailu arinetan
- Gidatze ikastaroak
- Parapente
- Hummer eta Porsche bezalako kotxeak gidatzea
- Abenturazko arrantza
- Urpean igeri egiteko ikastaroak
- 4x4 ibilbideak
- Belaren hastapenei buruzko ikastaroa

SALNEURRIA: 179,90€ pertsona bakoitzeko

NON: bono honi dagozkion ekitaldi gehienak Kataluinan antolatzen dituzte



NON EROSI: FNAC dendetan eta [www.smartbox.es](http://www.smartbox.es) webgunean

NOLA ERABILI: behin bonoa erosituta, kaxaren barneko dokumentazioak esperientzia desberdinak izateko jarduerak eskaintzen dizkizu. Behin, guztien artean bata erabakita erabakita, bertako telefonora deitu eta erreserba egin. Aukeraturako zerbitzua erabiltzerako momentuan, paperezko bonoa eman behar da.



Bono honekin parapenteko hegaldiak egin ditzazkezu

# LAN ESKAINTZAK

## KOMERTZIALA

Usurbilgo enpresa batek behar du: Komertziala hostalaritzako hainbat kafe produktuak saltzeko. Ezinbesteko baldintzak: Lan esperientzia hostalaritzan komertzial lanetan. Baliogarria izango da euskara jakitea, eta sektorea ezagutzea. Lan Baldintzak: 4 hilabeteko lan kontratua hasieran. Jardunaldi osoa. Soldata interesgarria. Berehala hasteko.

DATU BASEAREN EGUNERATZAILA Arrasateko euskara elkarte batek bere datu-basea eguneratzeko pertsona bat behar du. DESKRIBAPENA: datu-baseko kontaktuei telefonoz deitu, elkarteak datu-basean jasota dituen datuak kontrastatu pertsonarekin eta egin beharreko eguneraketak egin. ESKATZEN DA: harremanetarako gaitasuna, euskara eta Access erabiltzen jakitea. BALORAGARRIA: Arrasate eta euskara elkarrean inguruko ezagutza. ORDU-TEGIA: astelehenetik ostegunera 19:00etatik 22:00ak arte eta larunbatetan goizez 10:00atik 13:00ak arte. Arrasate edo ingurukoa.

## ERREDAKTOREA

Langile mailpeko aldizkariko erre-daktorea izango litzateke. Erredakzio talde bat izango luke gaiak zehazteko eta bera arduratuko litzateke elkarrizketak egiteaz, kolaborazioak jasotzeaz.. aldizkaria osatzeko informazioa biltzeaz eta maketatzeaz. Ezinbesteko baldintzak: EGA izatea. bestela euskerazko proba bat pasatuko du. Baloratuko da kazetaritzan lan egin izana. Idazteko erraztasun izatea. Maketatzen jakitea. Behin -behineko kontratua. 3 orduko kontratua. Hileko soldata gordina 600 euro.

## EUSKERA IRAKASLEA

Euskera irakaslea, Erandiorako, diplomatura edo lizentziatua, EGA edo baliokidea, esperientzia, kontratua: ekaina arte (hurrengo ikasturtean jarritzeko aukera), ordutegia: 8.30-9.30 eta 13.30 a 15.00 (astelehenetik ostiralera), hasteko (otsailaren 23a)

## EUSKERA IRAKASLEA

Euskera irakasle bat behar da Bilbon lan egiteko. Ezinbestekoa da diplomaturarekin edo lizentziatua izatea eta EGA edo baliokidea edukitzea. Kontratuaren iraupena ekainera harte izango da (hurrengo ikasturtean jarraitzeko aukera dago). Astelehenetik ostiralera lan egiten da 8:00-9:30 eta 13:30-15:00etara. Otsailaren 23 asteko da.

## ADMINISTRARIA

Administrazioko arduraduna izango da. Arlo laboral eta ekonomikoan eskarmentua. Nahitaezkoa euskeraz ondo jakitea. Ekonomia edo enpresetan lizentziatua (edo diplomaturarekin) izatea eta programa informatikoetan aditua. \*lan kontratua mota: ordezkoa (2009ko abendu arte). \*lanaldi osoa eta ordutegi zatitua.

## ESCOLTA

Acompañamiento, defensa y protección de personas determinadas. Título de escolta, nivel alto de euskera y experiencia mínima de un año como escolta. Contrato por obra. Retribución anual bruta negociable. Incorporación inmediata.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

# EKONOMIA HIZTEGIA

- EKITALDIA = EJERCICIO
- KAUDIMENA = SOLVENCIA
- MAILEGUA = CREDITO
- EKOIZPENA = PRODUCCION
- MOTELTZE = MODERACION
- OPAROALDI = BONANZA
- LIKIDEZIA = LIQUIDEZ
- LEHIAKORTASUNA = COMPETITIVIDAD
- LANKIDETZA = COLABORACION
- ALDAGAIA = VARIABLE
- BAZKIDE = SOCIO
- BERPIZTU = REANIMAR
- NAZIOARTEKOTZE = INTERNACIONALIZACION
- BALIABIDE = RECURSO
- SALMENTA = VENTA
- AURREIKUSPENA = PREVISION
- SASOIA = TEMPORADA
- SALTOKI = COMERCIO

# SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

5	6		8				2
	3	2				9	8
		9		7	2		
		8	6				
			8		7		
			9			1	
			2	3			6
4							
		6		4			3

## ERANTZUNAK

Zenbat denbora eman duzu sudokua ebatzteko? Hona hemen erantzunak.

3	8	1	4	5	6	7	2
4	5	6	8	9	3	7	1
7	6	2	2	2	2	2	2
1	8	7	8	2	2	2	2
6	2	2	2	2	2	2	2
1	4	8	7	6	3	9	4
6	9	1	6	9	1	3	1
8	4	6	7	7	6	6	8
2	5	4	1	3	2	5	6
8	4	6	9	1	2	3	1
8	5	8	1	6	9	5	8
3	9	1	2	3	2	4	7
5	6	9	3	8	3	6	9

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org  
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutaila, 48080 Bilbao  
ADMINISTRATZIOA: Pabli Zubiaur.  
MERKATARITZA KUDEAKETA: Nuria Martinez.  
DISEINU ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña.  
BANAKETA ARDURADUNA: Sergio Fernández.  
EUSKAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaestegia  
EGILEA: Leizaola Elkarte  
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundaiaren Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2009ko Martxo

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Lo nuestro es garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

**BIZKAIA**, lo nuestro